



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK UMORE AZOKA IZENEKO UMOREZKO ANTZERKI AZOKAREN ANTOLAKETARI BURUZ EMANDAKO GOMENDIOA

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Lehiaren Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean, LEA) Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duenak, Umore Azoka izeneko umorezko antzerki-azokaren antolaketari buruzko gomendio hau ematea erabaki du, 2014ko maiatzaren 8an eginiko batzarrean.

I. AURREKARIAK

1. 2013ko ekainean, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) jakin zuen, komunikabideen bitartez, Leioa udalerriko ostalaritza sektorean Umore Azoka izeneko umorezko antzerki-azokaren inguruko eztabaida bat sortu zela.

Albiste hori jaso ostean, LEAk informazioa eskatu eta aztertu egin zuen, eta horren ondorioz, Udalarekin hainbat elkarrizketa izan ditu.

II. LEAren ESKUMENAK

2. Gomendio hau Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeak, otsailaren 2koak, 3.3.e) eta 10.n) artikuluetan jasotzen duen eskumenaren barruan, hau da, «herri-administrazioei merkatuetan lehiari eusteko edo berreskuratzeko gomendioak zuzentzeko» eskumenaren barruan emango dugu.

III. UMORE AZOKA ETA «2013ko UMORE AZOKAREN ESTABLEZIMENDU LAGUNAK» PROGRAMA

3. Umore Azoka kaleko artisen azoka bat da, eta 2001. urtetik egiten da, Leioan (Bizkaia). 2013ko azoka –14.a– maiatzaren 16tik 19ra izan zen.

Jaialdia 16 espazio eszenikotan egiten da, guztira –gehienak, udalerraren erdigunean daude–, baita espazio ibiltari batean ere.



4. Udalak, «Leioako ostalaritza-sektorea indartzeko» helburu aitortuarekin, 2013ko Umore Azokaren Establezimendu Lagunak programa ezarri zuen.

Haxe zen programaren oinarria: Udaleko aurrekontuaren bidez azokako partaideen mantenu-gastu batzuk ordaintzea. Horretarako, «Umore azokako dirua» izeneko txartel batzuk sortu zituen. Txartel horiek programarekin bat egin zuten establezimenduetan entrega zitezkeen. Bi motatako txartelak zeuden: «Txartel urdina», 4 eurokoa (profesionalena) eta «Otordu-txartela», 12 eurokoa (konpainiena). Antolakuntzak doan eman zituen txartelak. Geroago, antolakuntzak establezimendu horiei txartelen balioa ordaindu zien.

«Txartel urdina» programarekin (4 euro) bat egiteko aukera Leioako ostalaritza-establezimendu guztiei eman zieten. Zerrenda ekonomia-jardueren gaineko zergako (EJZ) erroldaren bitartez lortu zuten.

«Otordu-txartela» (12 euro) 2 establezimendutara mugatu zuten (Leioako Batzokia eta Gambrinus garagardotegia). Biak pertsona juridiko ezberdinarenak diren arren (EAJ-PNV eta SERVICIOS ANDRA MARI, SL), pertsona juridiko berak kudeatzen ditu (ARGIMIRO URONES MARTÍN-CESAR ARMENTEROS, SL; IFZ: B95322392).

5. Lau euroko otordu-eskaintzarekin bat egiteko interesa adierazi zuten establezimenduak 14 izan ziren. «Txartel urdina»-ren atzealdean, bat egin zuten establezimenduen zerrenda agertzen zen, bakoitzaren telefono zenbakiarekin batera.

«Otordu-txarteletan» ez zen agertzen bat egin zuten establezimenduen izena. Onuradunei sistemaren funtzionamenduaren berri emateko, dokumentu pertsonalizatu bat helarazten zieten, bai jaialdia hasi baino lehen, bai iritsi eta akreditatzen zirenean. Dokumentu horretan, «Otordu-txartelak» Batzokian eta Gambrinus garagardotegian trukatu zitzaketela adierazi zieten.

6. 2013ko Umore Azokaren Establezimendu Lagunak programaren zenbatekoa, guztira, 13.681 eurokoa izan zen.

Artistek 4 euroko 841 txarteletatik 603 erabili zituzten; horien zenbatekoa 2.412 eurokoa zen.

Konpainiek 12 euroko 1.064 txarteletatik 941 erabili zituzten; horien zenbatekoa 11.269 eurokoa zen.

7. 2013ko Umore Azokaren Establezimendu Lagunak programarekin bat egin zuten establezimenduek ondoko zenbatekoak lortu zituzten:

- Leioako Batzokia	10.680 €
- Gambrinus garagardotegia	1.524 €
- Kurkudi Herriko Taberna	640 €
- Aida kafetegia	286 €
- Jokin taberna	216 €
- El Rincón taberna	148 €



- Txitoa Erretegia	135 €
- Taberna Zaharra	32 €
- Itxas Bide	20 €
- Artaza kafetegia	0 €
- Líbano kafetegia	0 €
- In & Out	0 €
- Zeuek taberna	0 €
- Telepizza	0 €

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINKO HAUSNARKETAK

8. Emandako diru-laguntzaren kopuru osoa kontuan hartuta, Udalak zerbitzu osoa otordu-sistema antolatzeko baldintza onenak betetzen zituen establezimendu bakar baten esku utz zezakeen.

Hala ere, sistema hori ez zen koherentea izango programan adierazitako helburuarekin, hau da, «Leioako ostalaritza-sektorea indartzearekin».

9. 4 euroko txartelak kudeatzeko erabilitako prozedura bat dator lehia askea babestearekin, Leioako Udalak, EJZko errolda erabiliz, establezimendu guztiei bat egiteko aukera eman zielako, txartel urdinen atzealdean establezimenduen izena eta telefono zenbakia adierazi zuelako, eta erabiltzaileei horietako edozeinen zerbitzua baliatzeko askatasuna eman zielako.

10. 12 euroko otordu-txartelak enpresa bakar batek kudeatutako bi establezimenduren esku utziz kudeatu ziren. Horrek esan nahi du Udalak udalerriko sukaldaritzaren merkatuan esku hartu zuela, eta esku-hartze hori, arrazoitu gabe egoteaz gain, ez dator bat programaren helburuarekin.

11. Lehia askeari begira, programa egokiago kudeatzeko irtenbideetako bat haxe izan zitekeen: kopuru ezberdineko bi txartel mota sortzea eta azokako partaide bakoitzaren esku uztea Programarekin bat egindako establezimenduetatik zein aukeratu. Horrela, erabiltzaileak zerbitzuaren kalitatearen arabera banatuko ziren, onuradunen beharrei edo hobespenei jarraiki.

Sistema horrek, hala ere, antolakuntzak adierazi duenez, azokaren antolaketan logistikako arazoak sor zitezakeen eta agian ez zuen bermatuko zerbitzua ahalik eta onena izatea.

Horregatik, beste irtenbide hau har zitekeen: lehenago galdetzea zein lokalek parte hartu nahi zuten programan, eta onuradunak lokal interesdunen artean banatzea, batere bazterketarik egin gabe eta ahalik eta establezimendu gehienei emanez parte hartzeko aukera.

Hori aukeratuz gero, Administrazioak kanpaina zabaldu egin beharko zuen, lokal interesdun guztiak atxiki ahal izateko; zerbitzuaren kalitatea bermatuz, aurreikusitako



helbururako gehiegizkoak ez ziren baldintzak jarri beharko zituen, eta eskaera modu ireki, garden eta justifikatuan banatu beharko zuen.

IV.- ONDORIOAK

LEHENA- Leioako Udalak, interes orokorraren bermatzaile gisa, ekonomian esku-hartzeko neurriak har ditzake, lehia faltsutzen ez badute, gardentasuna bultzatzen badute eta eragileen arteko edozein bazterkeria ezabatzen badute.

BIGARRENA- 2013ko Umore Azokaren Establezimendu Lagunak programaren diseinuaren eraginez, ostalaritza-zerbitzuen eskatzaile gehienak bi establezimendutan pilatu ziren. Hori ez dator bat ezarritako helburuarekin eta lehia askearen kontrakoa da.

HIRUGARRENA- Leioako ostalaritza-sektorea indartzea bilatzen duen programa batek zentralizazioa saihestu eta azokako parte-hartzaileek libreki aukeratzeko ahalmena sustatu behar du, bai establezimenduei bai kontsumo motari dagokienez, erabiltzaileen hobespen-irizpideetan oinarrituz (kalitatea, zerbitzua, kokapena...).

LAUGARRENA- Eraginkortasunean oinarritutako logistika-arrazoiak justifikatuz gero, azokako antolatzaileek erabiltzaileak lokal batzuetara bideratu ditzakete, betiere programako banaketak ezarritako helburua lortzeko behar- eta proportzionaltasun-eskakizunak errespetatzen dituela bermatzen bada eta eskaera programarekin bat egindako establezimenduen artean berdintasunez banatzen dela bermatzen bada.

V. GOMENDIOA

Azaldutakoa kontuan hartuta, Lehiaren Euskal Agintaritzak Leioako Udalari gomendatzen dio hurrengo urteetako Umore Azoka jaialdiko Establezimendu Lagunak programa diseinatzean ostalaritzako ahalik eta establezimendu gehienek parte hartzea sustatzea, erabiltzaileek beren hobespenen arabera aukeratzeko ahalmena izatea sustatzea, gardentasuna sustatzea eta edozein motatako bazterkeriak deuseztatzea.

Bilbon, 2014ko maiatzaren 8an

PRESIDENTEA
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ALVAREZ CASADO



**KIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**